

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

@ zuzendariari@egunkaria.com

✉ Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Enrike Lopezentzako askatasuna

Arantza Gutierrez Paz • ALGORTA

Askatasuna hitz polita da, baina azkenengo egunetan esanahi askotakoa antza, batez ere Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultatean. Askatasunaren izenean aurtengo Gabonak giltzaperatuta igaroko dituzu Basauriko espetxean.

Abenduaren 20an, aurreko egunetan, hileetan eta urteetan bezala, Fakultatean sartu nahi izan zenuen, unibertsitate publiko batean dagoen ibiltzeko askatasuna baitzenuen zeure alde. Norbaitek pasatu ezin zenuela agindu zuen ez dakit zein arauen izenean... Atean geratu zinen, eserita, oso jarrera baketsuan. Debekua injustua zen arren, zureari eusteagatik, hau da, atetik ez mugitzeagatik, eraman zintuzten atxilotuta. Beste atxiloteta bat daramazun borroka luze honetan, irakaslego propioaren alde, justizia arrotzari intsumisioa egitearen alde... Eta azkenean kartzelatu zaituzte... baina jakin badakit horrek ere ez duela zure borondatea makurtuko eta tinko jarraituko duzula, zure lagunaren artean koherentziaren testigantza ematen.

Gutun honen bidez elkartasuna adierazi nahi dizut, eta zorionak eta askatasuna opa. Gutxi da zuk ematen duzunaren truke.

Maitasunez eta kemenez betetako loreak

Miren Harismendy • IRUÑEA

Oraingoan, estatuan barna barreiatu dauden kloaketara asteburu abiartzen diren *konboi*-ei buruz mintzatu naiz. Eskatuko balidate *konboi* hauen ezaugarri bitxiren bat aipatzeko, zalantzarik gabe *busa* eta *bokata* aukeratuko nituzke. Edonori 30 ordutan 2.000 kilometro *busez* egiteko proposamena luzatuko bagenio, seguraski zorotzat hartuko gin-

galdeiozu...

Gizatasunaren aldetik erabat zilegi bada ere, ez al duzu uste hiru urteko epe horrek hasierako norabide hain propio horretatik zer edo zer desbideratu zaituela? Mikel Izagirre (Donostia)

Ez dut uste denbora kontua izan denik, ni ibili naiz beste bide baten bila; ikuspuntu desberdin batetik adierazi nahi nituen gauzak, beste hizkuntza batean. Zure galderari erantzunez, argi dago hasierako bidetik desbideratu naitzela, baina nik bide hau hura bezain propio sentitzen dut.



ANARI

Musikaria

Abenduaren 25etik aurrera **Igor Elortza • bertsolaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

tuzke. Normala denez, ez luke aparteko arrazoirik aurkituko horrelako *astakeria* egiteko.

Badago, ordea, *astakeria* hori erakarria eta gogokoa bihurtzen duen zerbaite. Badago, bai, bidaia hotz, garrantz eta astunak sortutako atsekabea goxotasunez eta indarrez betetzen duen zerbaite, ogitarteko ziztrin bat eta amaigabeko bidaia atseginak eta arinak bihurtuz. Badira urteak eta urteak, egunero, ordu guztiak *busean* pasa behar dituzten pertsonak. Egunero 2x4 metroko *eserleku* gogor batean haien bizitza ematen ari direnak; berogailurik gabe, hotzak/beroak akabatzen, inolako erosotasunik gabe, askotan gaitzen batek jota, sentimendu guztiak kontrolatzen dizkietelarik, maite dituztenak hilean bitan (40 minutuz) baino ezin ikusiz, errealitate gordinetik ihes egin ahal izan gabe, eta *autobusetik* atera ahal izan gabe. Badira, hori guztia pairatu arren, behin *kloaka-bus*-eko ate gris eta ilunak gaindituz gero, kristal zikin bat tartean izanik, elkar ikusi bezain laster, oraino irribarre goxo eta bero batez hartzen zai-

tuztenak. Pairatutako presio guztiaren ondoren, oraindik ere estatu erasotzaile, koldar eta anker baten atzaparretan ez erortzeko bizia duintasunez eta ausardiarekin ematen ari direnak. Mota guztieta txantaiei aurre egiteko gauza asko arriskuan jarri behar izan dutenak, eta, hala ere, begietara begiratzen dituztenak, oraindik ere errespetua, zintzotasuna, maitasuna eta kemena transmititzen dituztenak. *Haiengatik, senideengatik eta Euskal Herriagatik... Euskal presoak Euskal Herrira!!!*

Hilketa politikoak

Pako Sudupe • HERNANI

Aitortu behar dugu abertzaleok hiltzaileak garela egun. Ez dugu pistolarik hartzen, ez diogu besteari agindurik ematen hiltzeko, edo ez diogu laguntzen ihes egiten; baina, gure ideia bertsuak dituztenek hiltzen eta izua zabaltzen duten neurrian, hitzaile eta izu-eragile gara.

Espainol abertzaleek ere aitortu behar dute hitzaile izan direla oraintsu arte,

torturatzaile direla egun, eta askatasun ukatzaile: euskal abertzaleoi hisiatuki ukatzen digutela askatasuna geroa erabakitzeko, nahiz eta beren eskuz ez hil, ez torturatu, eta ez askatasuna ukatu Konstituzioaren eta Autonomia Estatuaren aitzakiarean.

Gerra lubakietatik ez baizik alde-aldera komunikabideetatik jarraitzen dugunok ez gara, kontzientzia aldetik, hiltzen eta torturatzen ari direnak baino hobekak, ezta hiltzaile eta torturatzaileei agintzen ari direnak baino hobekak ere.

Oraintxe ari dira Frantzia —Errepublikanoak ez dira hobekak izan, eta ez dira— plazara jalgitzen Aljeriako gerlan, duela berrogei urte, izandako tortura sistematikoaren eta presoner hilketen afera. Estatuaren morroi, hots, agintari izandakoak, hiltzaile izandakoak, hasi dira aitormenak egiten, eta batzuk damua agertzen eta beste batzuk ez. Ez dira hobekak baina jarrera hobea ageri dute, honetan bederen. Espainian, jendaurrean, horrelakorik egin al da inoiz? Aitortzea ez da berriz ez egitea, baina zerbaite da.

Gurean, utz diezaiogun hiltzeari abertzaleok, eta utzi diezaiote espainol abertzaleek torturatzeari eta askatasuna ukatzeari —berdin Errepublikak—, gizatasunaren izenean, damu-beharrean zakua ez handitzearen. Lehenbailehen. Eguberriko nahia. Urte Berriko ametsa.

Donostiako Arantzazuko ospitalari, esker onez

Mari Jose Isasa eta Patxi Sarriegi

Hil honen 13an alaba jaio berri zaigu bertako ospitaleko amatiarren sailean, eta eskertu baino ezin dugu egin jasotako tratua, profesionala zein gizatiarra. Amaiur seme-alabetan hirugarrena dugu bertan jaiotakoa, eta oraingoan ere mediku, emagin eta erizainen laguntza ezin hobea suertatu zaigu erditzea berran are pozgarriagoa gertatzeko. Mila esker.

montxo

